

Benetako kristiñauon artean ez dago, ba, atso-agurerik. Danok gara gazte, ta danok iraungo dogu beti gazte. Baiña izan gaitezan **benetakoak**

Gauza zar onak
barri onakin alkartu;
Gauza zar txarrak
barri txarrakin baztartu.

Merdier

A'tar Lon

Lur
gerek
zear

Aur bat ezin-egona zela bera, hala ereka da, esan ohi dugu. Izena "azpi batek azpi gogor tinxonik" osoa, gerekia da olakoa. Ta emen nahi izan gaur gauza askotan azpi gogor barik, urduri, ezin-eganik, gauzaren tokia utzi ta beste erosoago batera trisket egin nairikan. Gaixeari berrezko zaio dagon egoera aldaiatu nai izatea: beti batean erreztatzen gogait egiten,

Gereka gara etan errez sortu oি

dira naspildura, matraka, zirri-borro ta antzekoak. Politikan, esate-rako, batzuk ezkertar egin oi dira, beste batzuk eskuitar, eta beste irugarren batzuk erdi-bidetik jo nai dute. Baiña geiegikeriak be, naiz punta batetik naiz bestetik, errezz sortzen zaizkigu. Bai, geiegikeri geienak onako garaien frutua dira. Bertan aurkitzen dute, jakin, lur apatz ongarritua, erne, azi ta ugaritzeko. Lenago argiak eta ezin-ikutuak zitzaizkigun uste ta ideiarik asko duda-mudan jartzeak agiri-agirian laguntzen die geiegikeriai.

Joandako urteotan batez ere gisa ontako geiegikeriak ugari izan diranik ezin dezakegu ukatu. Begira egunerokoak; begira telebixtak; irriatik ere egunero zabaltzen dizkigu olako zerak, dala gogorkerizaleok izan duten agermen bat, dala gizarte, politika, erri naiz erlijio barrutian izan duten erakustebat. Gurean naiz kanpoan olako bitxiak ugari dauzkagu gaur. Eta ez gazteen artean bakarrik, zarrak ere tarteko dira sarritan.

* * *

Gauzak atondu naia ona izanik ere, geiegikeria beti da naskagarri. Zergatik? Norbaitek bide egin bear

du aurrelari, baiña geiegikeria, esan oi danez, eldu gabe dagon zer-baiten frutua dugu. Edo obeki, be-rez onak diran gurari ta irrits ase. gabeen ekarri matxarra: landu ga-be geratu ziralako betetasun osoa lortu etzuten asmo leial batzuen en-nari.

Azkar azten da landare au. Ez du iñorentzat ere lotsarik, ez begiru-nerik. Aurrera doa zirt eta zart, el-dutze ta umodura onak berez bear duen denborari jaramonik egiteke, ezpaitu arte ta pazientzirik ortara-ko. Bizkor ibilli nai.

Alare, bizitzari begiratu ezkero, naiz ikusiz ikasi dogunari, azkar ibilli nai au —dala politikan, dala literaturan, dala edozein gaietan— umekeria dirudi. Geiegikeriari lo-turik dabillena, aurke bat besterik ezpaita. Aur ajo qarerdikoa, baiña aurtxo bat, aur haren bere-zitasun guztiakin jantzia, naiz-ta tasun oiek sarri estalduak izan. Txiki ta audi aueñ ostean, alare, diferenzi au ikusi nennzake: au-rak ba-du atsegin era zoramenik; ez, ordea, olako adiñekoak.

Koska batean mugatua dirudi: bere arrimenak arriturik uzten du. Auxe du, izan ere, bere bizikera; ezin da bizi piri-para ta eten gabe

arrimenak saltzen eta zabaltzen jardun gabe; eskui-ezkerreko guz-jardun gabe; zipotza sartu erazi txunditu ta gabe ezin zaizu bizi. Orixe da aren injokabidea, oiek bere iskillu ta in-dar. Edatu ta zabaldu-ala, orraitio, euri-zaparrada ostean ur-musku-luak bezela itzali oi dira geiegikeri-zaleen asmo ta ekiñak; sustrai ga-beak diran ezkero, ezin izan irau-pen aundirik.

Sendotasuna ta iraupena zerk ematen ote dio bizitzari? Etsimen sakon andiak, uste bete ta osoak. Baita egikizunak berarekin daka-rren erantzun-bearrak ere. Biotz onak, kemenak eta prestutasunak, naiz-ta txalogarriak izan, ezingo dio egundo ere segurantzari eman.

* * *

Uste ta iritzi bitxi askoren ja-be dugu geiegikeri-zalea. Bet datoaz gauza askotan, arekin eta onenkin. Geienik gaiñera era batekora jo-tzen dute; gertakari soillak, kore-kretuak ere guztizkotu oi diruzta, danenak bai'litzan. Auen aurretik eztu iñork ere olako oiurik bota; eztau iñor ere beren antzera aur-kitu, ain triste ta goibel, ain sabel-mindurik. Munduari mandatu bat emateko jaioak dirala uste dute.

Atsegin zaie utsetik astea. Beren aurretik ezta iñor izan; ezta ezer onik burutu. Dan guztia kutsuturik dago, loi ta zikin, ezin dezakegu arnasik artu; ezerk ere ez du bali-orik. Neuk ezarriko diot bear du-ten balio ori. Bai ote? Guztia erre ta suntsitu bear da, oso-osorik erre ta suntsitu ere, ondoren izaki be-rriekin mundu berri bat eraiki ta osatzeko. Bai ote?

Onakoak ez dute federik, ez us-terik, enuxu-banuxuko aldakuntza epetsuetan. Auentzat bizi barria, beti ere, eriotz baten ekarri ta on-dorena dugu; ez edozelango erio-tzarena gero, eriotza zakar batena baizik. Eriotza beti da zakar, go-gor. Aurtxoak ere berdin egin oi-dute, beren jolas eta jokuak anto-latzen dituztenean; geienik sarkal-deko —oesteko— lapur, gudari, illzaille ta olakoen joko ta liska-rak dira gaur eder zaizkigunak.

Punta baten naiz bestean koka-tuta dauden auek, batez ere, jator-bitxi ta iñor ez bezelako izan naiak berezitzen ditzu. Jatortasun ori, bai-nia, ezta sustraitsua, azaletikoa bai-no, geienez beintzat. Eta jatorta-sun —originalidade— ori kanpoti-ko asmu, egitamu ta saicetan da-tza; eztu barrura jotzen. Ortik, onakoen iritzi ta zerak eguneroko izparringi ta antzeko paperetan ba-

Ia-bala dabiltsanak ditugu. Ta ego-ki ta zuzena dala gizartearentzat? Gizonok egunean egunean daginu-nak, ala olako zerbaitek, ote du garantzi ta importantzi geiago?

Oraindik ba-dituzte beste akats batzuk ere. Ez dute lñoren premi-ñarik; asko dakite. Beren buruen jabe dira. Lñoren bearrizan gabe bizi izateko aiñako erabakiak ar-tzeko gai ditugu; besteak baiño gelago dira. Aurrerago jorik, oilek zakartzat jo ta ezetsi ere egiten di-tuzte. Besteak ez dira ezer. Gu-bai gu!

* * *

Eta geiegikeri auen aurrean, zer egingo? Besoak gurutzena ta nasal segi? Ezta bidezkoa. Ba-dute onik ere geiegikeri guztiak, naiz angcak naiz emengoak izan, naiz goitik naiz beetik etorri. Galderak dira, erantzun zai. Oien gogokeriak ma-mitzen duten galdera zeatz-ez oien pean buru-auste ta kezka bat dago dardarka, argi-itx bat aditu nalean. Guk emango ote itz ori? Argia nai duenari ematea, ez al da errukizko egintza leiala? Laguntasun eske daukagunari eskua lutzatzea, ez ote dugu eder?

Eta nola ekarri erdiko bidere, edo neurrira gogor-zale auek? Go-

gokeriz ez, ezta geiegikeriz ere. Au eziña litzake. Gogorrean geuganatu dea dugu; era au ezta arteza, ezta ona, gustiz kaltegarri ta makurra baizik. Ilpoia berotu ta makillatu nail ginduzken argalkeri ta azken gaiztoetan eroriko giñake, usterik gabe.

Onakoak ez dute zigorrik bear. Umeak zigor-aziz, ezer eskuratzen ote dugu? Beren mortasuna oso-tuez dijoan bitartean, dituzten kas-karkeriak alintzat artu ita abegi ona-egin bear zaie umeaiz landare gaz-teok zugatz egiteko, au da, ume-gazte auek gizon egileko ezta bide egokia ta irteera onekoa egunero-ko akarra ta zigor-uhutua. Maita-sunak indar gelego dñe euliak ere ezpaitira ozpiñez amarratzen.


Auleri auek salvo andia bear-dute; este ta jeldarrirlo artezak. Auetatik bat auxer nesleok gerala-nugatuak, bearitsuak, zerbait bear-dugunak, eta palla tsalde au, zerbait au, beti ere, lan-joranzko akulu dugula. Balta, bidenetar, eringarri ta arnasgarri ere, gaurtzi giza-eran, tzukizunari begiraltu ezkero.

Garai txarra dugu gaur hizi iza-leko, latza ta irriiskorra, egiazki. Baiña laztasun onek, eta goga onak, guztiol erakutsiko digu bes-

teakin argiro jokatzen, zabal eta prestu izaten, maitasunezko loka-rezko alkar artu ta ulertzeke alegi-rriz egiten, ezbarditasunak arin-ñak egiten. Gure gizarte orrela, bere tzen. Gure gizarte orrela, bere politika, erri-artu eman eta erlijio

aldetik begiratuz, garbi ta obeagoa izango da noski. Ontan denok egin dezakegu zerbait, eta egin bearra dugu.

Bizkargi



Kristoren Eliza

ELIZA ZER DAN

Eliza zer da? Siñismendun Kristaben bezkuna, Alia Santua buru-dalarik. Siñismendunen bezkun onek siñismen bardina dau, sakramen-to bardinak eta buru bera.

Buru onen menpeko dñia, Jesukristok sortu eban bezkun au. Jesukristoren aurrelik etzari Elizari, Oso-eta Sinagoga judeutarren artean eta beste erri batzuetan be irudian alakz erlijio-hatzuk. Jesukristok munduan zala sortu eban Eliza ta Panjoreste-egunean adierazi. Moisek sortu eban Sinagoga, baiña Ikerkaren legeetaz. Apaizak be ba-ebazan enda baten; Iurreko ondasunak eskintzen ebazan; ez eukan sakramen-turik, barruko santutasuna ezartzeko heintzat. Sinagoga onek Jesukristo mundura eterri arte bakarrik irauten bear eban. Kristok mundu guztia-rentzat sortu eban Eliza; siñismen agirria adierazten dau; siñismendunen salbaziñoa ta santutasuna dauz elburu. Edozein senditan sortu ta izan daiteke abadetza; arimaren aldezko ondasunak bakrrik eskintzen dauz; egizko sakramentuak daukoz.